



ADIERAZPENA

APIRILAK 21

HARRERMANA PROIEKTU APORTAR emana OREKA PERTS VISION TITAZIT ELKARRITASUNA ABERRI

Orain arte egin ditugun Aberri Egun guztietako aldarri nagusia izan da gure herriak bere etorkizuna erabakitzeo eskubidea duela. Edizio bakoitzak izan du bere testuingurua, bere egoera berezia. Askotariko denborak eta egoerak eman dira eta denek izan dute helburu eta goiburu bakarra: Euskadi da euskotarren aberria.

Aurtengo ospakizunera begira planteatzen zaizkigun inguruabarrek hauteskunderaz jositako egutegian kokatzen gaituzte, eta oso eragin nabarmena izango dute denek Hego Euskadiko herrialdeetan (Ipar Euskadik datorren urtean egingo ditu toki hauteskunde esanguratsuak eta test izaera izango dute Lapurdi, Zuberoa eta Nafarroa Beherea bateratzen dituen elkargo administratibo sortu berriaren etorkizuna neurtzeko).

Apirilaren 28an hauteskontziak irekiko dira Espainiako Parlamentuko ordezkariak aukeratzeko, eta hilabeteren buruan egingo dira udal, foru eta Europako hauteskundeak.

Gorte Nagusietarako hauteskunderaz dagokienaz, bozak datozkigu

oso giro tenkatuan eta bozketen ondoren sortuko diren gehiengoan arabera, inboluzio demokratikoa eta Estatuaren bizentralizatzea eman litezke. Ez dira, argi eta garbi, euskal herritarrentzat garrantzizkoen jotzen ditugun hauteskundeak, baina sortzen ari diren aurreikuspenak eta ekar ditzakeen ondorioak gogoan, berebizikoak eta oso garrantzitsuak dira gure etorkizun politikorako.

Maiatzean, hauteskontziak toki gobernuen eta Batzar Nagusien –Aldundien– mapa politikoa birformulatuko dute, Euskadiko egituraketa instituzionalaren oinarritzko zutabea, alegia. Oinarritzko harmaila dira gure nazio erakuntzarako eta ezinbesteko kanoi harri gure gizartearen kohesio eta ongizatea lortzeko.

Nafarroako Foru Erkidegoari dagokionez, Erresuma Zaharrean aldaketa politiko sakona eman zenetik lau urte igaro ondoren, hautesleriak Parlamentu berria aukeratu du eta sortuko diren gehiengoan arabera osatuko da Gobernu berria. Hauteskunde erabakigarriak izango

A HEMEN

hasi DIA LUZU GIZAKIA
ZABALTZEA
ERANTSI
TRANSFORMACIÓN
PRESEN
ARRIA
funtseko

dira urtetan integrisimo sektarioak altxatu zituen intolerantzia harresiak eraisteko hasitako lana finkatzera begira. Hauteskunde hauetan jokoan jarriko da aniztasun, tolerantzia eta normaltasun politikoa indartzeko beharra.

Bozketa horiei guztiei gehituko zaizkie, era berean, Europako Parlamentuko ordezkariak aukeratzeko egingo diren bozak.

Esandako hitzordu horietan guztietan jokoan dugu gure etorkizunaren funtsezko parte bat, tokian tokiko eta Europako esparruen artean Estatuari dagokiona egonik, euskal aberriaren garapena eta bere eraikuntzarako tresnak baldintzatuko direlako. Gaur oso era berezian aldarrikatzen dugu baina egunez egun hazi arazi beharra dugu. Horregatik behar bada, 2019ko Aberri Egun honetan nabarmendu nahi dugun helburua da gehiengo demokratiko nahikoa sortu beharrean aurkitzen garela, gure herriaren proiektua bultzatzen jarraitu ahal izateko.

Euskadiko emakume eta gizonen konfiantza jasotzeko garaia dugu,

Euskal Aberriaren alde lan egiten jarrai dezagun. Ahaleginak biderkatzeko garaia dugu, nazio kontzientzia zabal bat sortzera begira, bidea garbitzen lagunduko diguna eta indarrak emango dizkiguna aurrez aurre izango ditugun erronkei ekiteko lanari heltzeko eta lan horretatik onik irten gaitezen. Gure udalerrietan, gure herrialdeetan, Espainiako Estatuan, Europan. Aberri Egun berezia dugu aurtengoa. Gure Aberriaren egun handia da eta euskal emakume eta gizon guztiak deitzen ditugu bozkatzera Euskadiren lidergoa denon artean bikoiztu dezagun. Pausuz pausu, herri honen askatasunerako bidean aurrera egin dezagun.

Politikagintza gauzatzeko bi modu daude. Bata, jendearen sumindura eta haserrea baliatzen duena bere estrategia propioa finkatzeko, krisi handiagoa eragiteko, haserrea sortarazteko helburu bakarrarekin, diskurtsoak tenkatzeak eta gizakien pasioen esparrura eramateak dakartzan arriskuak ahaztuta. Tentsioak gorenera eramateko tentaldirik arduragabeena da hori, beldurraren bidez eta, azken



HARRERMANA ELKARRIASUNA VISION PROIEKTU APURTAR PERTS eman OREKA TITAZIT ABERRI

muturrean, indarra eta bortxakeria erabilia, probetxu partikularrak lortzeko helburuari begira egiten dena, dela hauteskundeetan dela beste edozein esparrutan. Beste molde bat da neurri edo ekimen bidegabeek pertsonengan sortu duten sumindura bideratu nahi duena, jendearen urruntze edo haserre horren sorburuak zuzentzeko, arintzeko edo ezabatzeko jarrera eta jokaeren bidez.

Haserre baliatzea bata eta konponbide egokia eta bakezalea ematen saiatzea bestea.

Politikagintzan aritzeko lehenengo moldea Espainiako bihotzean instalatuta darama denbora luzea. Sentimenduak tresna bihurtu dira eta horrek ekarri du borroka anker eta antzua, zeinetan aurkariaren izen ona zikintzea bilatzen den, elkarrizketaren indarra ezerezean uztea, herritargoaren urruntzea eta borroka baliatzea gatazkaren amaiera bultzatzeko mekanismo gisa. Horretarako, faltsutu egiten da errealitatea, gezurrak esaten dira, iraintzen da, elkarbizitza narriatzen

da, politika justiziaren esparrura eramaten da, arazoak gaiztotzen dira. Zuzenbide Estatuaren joko zikina egiten da, kontrol mekanismoekin, segurtasuna eta bermea aitzakiatzat hartuta. “Legea inposatzeaz” hitz eginez baina legetik kanpo edo parte baten mesedetan, askatasunaren eta demokraziaren tarreak gero eta estuago eginez. Eta hori dena mozorrotzen da banderaz eta tradizioz jantzitako patriotismoarekin. Estatu birzentralizatu beharra, eskuduntza autonomikoak Administrazio orokorrari itzultzea eta “erkidego desleialei” transferentziak egiten ez jarraitzea eta hizkuntza ofizialak –euskara, katalanera eta galegoa– gatzelaniaren mende jartzea aldarrikatzen da. Hezkuntza bakar eta bateratua goستن duen populismo zaharkitua apaintzeko osagai zaharkituak. Azken finean, eredu “autonomikoen” amaiera eta “espainiar nazio bakarra” berriz ere inposatzeko deia.

Bestetik, politikagintzan aritzeko bestelako eredu hori dago, fanatistotik urruntzea bilatzen duena gaur egungo arazoei konponbidea

A HEMEN

hasi DIA LOGU deiar GIZAKILA
ZABALTZEA
ERANTSI
TRANSFORMACIÓN
ARRIA
PRESEN
futs

emateko eta adostasunak bilatzeko, jarrerak hurbiltzeko. Zailtasunak identifikatzea, sorburuak eta kausak objetibotasunez aztertzea. Hitz egitea, eztabaidatzea, amore ematea, hitzartzea, errespetatzea. Euskadin edo Katalunian ematen den arazoaren aurrean, non biztanleriaren zati handi batek bere nortasun nazionala aitortzen ez dela eta Estatuaren ofizialtasunak ordezkatzen ez duela sentitzen duen, ez dago ez ikusiarena egiterik. Ez dago agerian dagoena ukatzerik eta legeak bestelako estatus bat eragozten duela esaterik. Euskal herritarren edo kataluniarren aldarrikapen legítimoen aurrean ez dago entzungorrena egiterik aldarrikapen horiek Espainiaren globalitatean gutxiengoak direla argudiatuz. Gatazkak, denboran irauten dutenean eta hiritargoaren zati handi batek sostengatzen dituztenean, ez dira sekula konponduko elkarrizketari edozein ate itxita. Estatuaren botereek, gobernuek, ezin diete ezetzarekin erantzun Euskadik eta Kataluniak demokrazia eske egiten duten aldarrikapenei. “Ez da ezetz” leloa, gaur egun ustezko “sendotasun” gisa erabilia da, eta porrota baino

ez du bermatzen, lehenago edo beranduago ebatzi beharko den sofismaren aurrean.

Benetako politikagintza, mendebaldeko demokrazien ezaugarri izan den politika “solidoak” Espainiako Estatu eta bere Gobernuan daudenak derrigortzen ditu planak, proposamenak eta ekimenak abian jartzera, Espainiako Estatu barruan nazio errealtate ezberdinak direla aitortzeko arazoa behin betiko konpontzera begira. Gaur egungo Espainia Estatu osatzen duten nazio errealtateen erabakimen askearen aitortza eraginkorra, burujabetza partekatuen printzipioan oinarrituta. Aniztasun kultural, instituzional eta politikoa errespetatuta, hiritargoaren borondate demokratikoari bide politiko eta legala emanez, parte hartzeko eta erabakitzeko mekanismo hitzartuen bidez. Xedea da, azken finean, zilegitasun eta legezkotasun printzipioak jokatzea, betorik eta inposaketarik gabe.

Xedea ez da, beraz, alde bakarreko mekanismo edo estrategiak ezartzea. Ez betorik ezta egintza kontsumaturik ere. Beharrezko dugun jarduketa politikoak erantzun beharko dio,



HARRERAKO ELKARRITASUNA ABERRI PROIEKTU APORTAR emana OREKA PERTS TITAZIT

ezinbestean, zilegitasun printzipioari. Baina zilegitasuna errespetatzeak ez luke printzipio demokratikoa urratzea ekarri behar. Printzipio honek beharrezko du hiritargoaren erabakimenari balio nagusi eta oinarrizkoa aitortzea. Printzipio hori indar horrekin berarekin edo are indar handiagoarekin ere bada indarrean dagoen legea.

Demokrazia eta zilegitasun printzipioak errespetatzeak, horiek biak uztartuta, eraikiko ditu oinarri sozial eta politiko nagusiak Espainiako Estatuan konpondu gabe jarraitzen duten gatazka nazionalak konpontzeko bidean aurrera egiten lagunduko dituzten balioak eta erreferenteak ezartzeko.

Ataza ez da erraza gaur egun bizi dugun egoerari erreparatuta eta komunitate osoaren onbeharrez politikagintza errealitatea eraldatzeko tresna gisa berroneratzeko konpromiso publikorik ez dagoela ikusirik.

Europako batasunaren baitan ere ez dira baldintzarik onenak ematen gure herrien etorkizun komunaren inguruko

hausnarketa lasaia ahalbidetzera begira. Erresuma Batuak Europako Batasunetik ateratzeko asmoa erakutsi izanak jarrera defentsiboak eragin ditu Europako Batasunaren barruan ezegonkortasunarekin mehatxatuko duen mugimenduen beldur. Neurri batean ulergarria ere bada Europako Batasunak jarrera zorrotzari eustea bere esparru barruan sor daitezkeen gatazkei aurre eginez. Batasunaren eskubideen defentsa dago Europak hartu duen estrategia mankomunatuaren bihotzean. EBk mesede eskasa egingo lioke bere buruari Erresuma Batuaren borondatezko irteera jarrera ahularekin negoziatu izan balu. Edo, okerrago, negoziaketa bideratu izan bazen “ez irtetearren truke” baldintza berriak edo prestazio berriak jartzera.

Hala egin izan balu, EBren ordezkariak alde egiteko beste jarrera batzuk elikatuko zituzkeen, barruko beharrak baliatuta autarkia, populismoa eta “antieuropeismoa” babesteko erreparorik erakutsi ez dutenen aldetik, beren arazoak konpontzeko aitzakiatzat baliatuta. Europaren etorkizuna batasuna da eta batasuna dakar elkarren artean hitzemanda dauden herriek

A HEMEN

hasi DIA LOGU deiañ GIZAKILA
ZABALTZEA
ERANTSI
TRANSFORMACIÓN
PRESEN
ARRIA
futs

osatutako federalismoan burujabetza partekatzeak eragiten duen indarrak, errespetuarekin eta Lur planetaren zati honetan elkarrekin bizi garen emakume eta gizonen ongizatea, oparotasuna eta giza garapena defendatzeko energiak eta politikak partekatzeko borondatearekin.

Horregatik agian edo, behar bada, Brexit-aren kontra eraiki duen “babes-oskol” horren ondorioz, Europako Batasunak ez du oso jarrera irekia erakutsi gurea moduko herriek zilegitasun osoz egin duten eskariaren aurrean, Katalunia edo Eskozia moduko herrien eskarien aurrean, Batasunaren baitan nazio gisa aitortuak izan gaitezten. Ez, horiek ez dira “Estatu kideen barruko arazoak” Estatu izaerarik ez duen nazio errealtate batek bere estatusa normalizatzeko irtenbide demokratikoa erreklamatzean behin eta berriz baieztatu izan den moduan.

Europak ulertu behar du bere esparru barruan diren Estaturik gabeko Nazioek ez dituztela Batasunaren loturak hautsi nahi. Guztiz alderantziz, Europako Batasunean jarraitu ahal izatea bermatu nahi dute, bakoitzak

bere nortasun propioarekin, beren etorkizuna ez dutelako Batasunetik kanpo ulertzen.

Hortik dator Europako Batasunak “Argitasun Zuzentaraua” ezarri beharra, Estaturik gabeko nazioek, marko propio eta independentea garatzeko aukera izan dezagun, burujabetza partekatuarekin edo interdependentzia bidez bultzatutako mugimendu demokratikoak bideratu ahal izateko, eta Europako Batasunean jarraitzeko aukera bermatuz Batasunean sartzeko “ad intra” mekanismoaren bidez.

Euskadik aldarrikapen bat egiten du, baina ez gaurtik edo atzotik, baizik eta iragan mendeko 33. urtetik hona. Euskadiren aldarria da nazio aske gisa dagokion etorkizuna Europa barruan dagoela. Europa batua, sendoa, kohesionatua, politikoki egituratuta. Moneta bakarrarekin, politika ekonomiko harmonizatuarekin, defentsa eta segurtasun mankomunatuarekin, diplomazia eta kanpoko politikarekin; ingurumen politika iraunkor eta jasangarriarekin. Behar dutenei elkartasuna eta solidariotasuna



HARRERMANA PROIEKTU APORTAR emana NOISION OREKA PERTS ANIZTATZIT ELKARRITASUNA ABERRI

erakusteko mekanismo hitzartuekin, giza eskubideekin. Parlamentu demokratiko baten bidez Estatu jakin baten interesetik harago begiratu duen Gobernuarekin. Eta, hori guztia, aniztasunaren defentsa oinarri harturik, kontinentean diren kultura ezberdinak errespetatuta eta aintzat hartuta. Subsidiarioritasun printzipioan oinarrituta, kudeaketaren eraginkortasun eta hurbiltasunaren ezaugarri gisa.

Europa batuaren proiektuari uko egiten diotenen aurrean, Euzko Alderdi Jeltzaleak berretsi nahi du konfiantza duela Europan. Arimadun Europa batean. Hiritarren Europa, hiritarrentzat egina. Herri askeek osatutako Europa, elkarren artean proiektu bat eraiki dezagun.

Duela ehun eta hogeita bost urte, Arana-Goiri anaien eskutik, Ikurrina lehen aldiz igo zen eraiki behar dugun aberriaren ikur gisa. Orduetik hona, gure historia osoan urte bakar batean ere ez da igo gabe geratu, Pirinioetako mendilerrotik hurbil dagoen txoko honetan, Espainia eta Frantzia Estatuaren artean, Herri bat dagoela adierazteko, bere askatasun nazionala lortzeko borondate hautsi ezina duen

herria garelako esateko. Askatasun hori irabazi nahi dugu herritargoaren gehiengo nagusi batek askatasunez eta demokrazia giroan bere borondatea hautestontzietan adieraztearen bidez. Izatea eta erabakitzea. Horra hor gure eginkizuna.

Gora Euskadi askatuta!

Euskadin, 2019ko apirilaren 21ean